

ERAKUNDE ADIERAZPENA **APIRILAREN 8A, IJITO HERRIAREN EGUNA**

1971ko apirilaren 8an Londresen egin zen Ijitoen Mundu Biltzarrean, besteak beste, ijitoen bandera eta ereserkia (GelemGelem) ofizialdu zituzten. Egun seinalea da ijito herriarentzat, eta, hala, egun horretan, munduko toki askotako ijitoak biltzen dira, egun hura oroitarazteko eta baita ijitoen exodoa, haien herriaren eta arbasoen harat-honat ibiltzea, oroitarazteko ere.

Donostian iaz hasi ziren Gipuzkoako eta Donostiako ijito elkarteak eta ijitoen aldekoak egun horretan biltzen, egun adierazgarri hori oroitarazteko, batetik, baina baita Donostiako eta Gipuzkoako jendartean parte hartzen duen kolektibo gisa dituzten aldarrikapenak zabaltzeko ere.

Historian atzera begiratzen badugu, ikusiko dugu ijito herria guk uste baino askoz lehenagotik dela euskal gizarteko parte, jasota dauden aurreneko datuek lehenbiziko ijito familiak XVI. mendean iritsi zirela esaten badute ere. Euskal herriarekiko interakzio edo elkarreragin horretatik Erromintxela sortu zen, Euskararen eta Ijitoeraren arteko hizkuntza-nahasketa bat. Gaur egun, bizilagun hauek, 25.000 pertsona baino gehiago dira Euskal Herrian, eta ezin ulertu daiteke Euskal Herririk haien partaidetza eta ekarpenik kontuan izan gabe.

Hainbeste denbora bada ere ijitoak gure gizartearen parte direla, oraindik ere ezjakintasun handia dago pertsona horiek osatzen duten kolektiboaren inguruan. Ezjakintasun horren kontra egiteko modu bakarra elkar ezagutzeko bidea ematen duten guneak eta dinamikak eraikitzea da. Eginkizun horretan, funtsezko papera jokatzeko du ijitoen eta ijitoen aldeko elkarte mugimenduak, ijitoen kulturak bizirik segitzeko eta ijitoen nazioa aitortzeko lan egin ahal izateko.

Horiek horrela direla, Udalbatzaren Organo Araudiko 104. artikulua aintzakotzat hartu eta haxe da BILDU udal taldeak Udalbatzari proposatutako

Erakunde adierazpena:

Donostiako Udalbatzak adore eman nahi die behin berriro ere, nola ijito herri guztiari eta ijito elkarteei, hala donostiar guztiei ere, elkar onartu, errespetatu eta elkarrekin bizitzeko lanean segitu dezaten biak batera.

Donostia, 2012-03-09

Izpta.: JOSU RUIZ
BILDU UDAL TALDEAREN BOZERAMALEA

